Potxinen
ikasgaiak
Potxin

oinez basoa

esan izan
gozan
nafarroa oinez'14

OINEZ BASOAREN
kide al zara?

Potxin

The world's forests

Ingurumena zaintzen

- Munduko basoak murrizten ari dira. Industrializazioa dela eta, basoak era basati batean ustiatzen dira. Hori dela eta mundu osoan basamortuak aurrera doaz.
- Oinez basoa proiektuak inguruarekiko sentiberatasuna sustatu nahi du eta ingurumena hobetzeko bere laguntza eskeini nahi du.

MUNDUKO HAINBAT BASO

- Amazonia Hego Ameriketan.
- Baso borealak Canada eta Errusian.
- Couvet Suizan.
- Baso tropikala Congon.
- Sequoia National Park Estatu Batuetan.
- Spessart pagadia eta Oihan Beltza Alemanian.
- Sainte Baume Frantzian.
- Irati oihana Nafarroan.

Other land
Water

Aurki ezazu aurreko diapositibeko basoen estatuak

Inguruko basoak

Deskriba itzazu zure ingurune hurbileko basoak

Espezie bakarreko basoak ala baso mistoak dira?

omez basoa

NOLA LANDATU ZUHAITZ BAT?

1.

2.

3.

4.

5.

6.

7.



Jarraibide testua

Zer egin nahi dugu Zangozan?

Basoa berreskuratu

Baso jangarria sortu

Harraparientzako Kutxa-habiak jarri

Hegazti intsektujaleentzako kutxa-habiak eraiki

Saguzarrentzako Kutxa-habiak eraiki

"Iolana iola" tximeleta babestu

oinez basoa

Testu honen ulermen ariketak egin nahi badituzu,
sar zaitez web orrian eta Potxinen txokoan aurkituko dituzu.

Babes Ezazu

Gure basoa sortzen laguntzeko, jarrai itzazu hurrengo pausuak:

- **1.- Webgune honetan bertan, on- line babestu.**

  LANDATU

  Babes bakoitzaren prezioa 10 €koa da.
  100 espezie/etxolaren babesteak, "Babesle nabariak" atalean agertzea suposatuko du.
- **2.- Babestu nahi duzuna aukeratu ezazu.** Babestu nahi dituzun espezieak edota etxolak eta bakoitzaren kopuruak saskian gorde.
- 3.- Aukeraketa bukatutakoan, "erosi" botoiaren bitartez aukeraketa onartu ezazu.
- 4.- Erosketarekin aurrera egin ahal izateko Oinez Basoa Komunitatearen kide bihurtu behar zara.
  - 4.1.- Jada kidea izanez gero, zure helbide elektronikoa eta pasahitza idatzi beharko dituzu.
  - 4.2.- Oraindik kidea ez bazara, zure datuak sartu eta datuak konfirmatzen dituen mezu elektronikoa jasoko duzu zure helbidean. Datu hauek, aurrerago, zure laguntza pertsonalizatzea ahalbideratuko dizute.
- 5.- Ordainketa on- line egin dezakezu.
- 6.- Ordainketa egindakoan, zure babesa pertsonalizatzeko aukera izango duzu nahi duzun izenarekin, nahi dituzun argazkiak edota iruzkinak gehitu eta **zure enpresaren edota elkartearen logoa jarri** ahal izango dituzu, besteak beste.

Aurten, "2014ko Oinez Basoa" proiektua gauzatzen laguntzen diguzuen guztien artean gure inguruaz gozatzea ahalbideratuko diguten sari ezberdinak zozketatuko ditugu.

LAISTER IZANGO DUZUE SARI GUZTIEN BERRI.

Testu honen ulermen ariketak egin nahi badituzu,
sar zaitez web orrian eta Potxinen txokoan aurkituko dituzu.

BABESTEKO AUKERAK

Babestu

BERRESKURATU BEHARREKO BASOA

ERROMEROA

babestu

EZKAIA

babestu

ABARITZA

babestu

ESPANTALOBOS

babestu

ARTEA

babestu

ALADIERNOA

babestu

BASO JANGARRIA

POTXA KAPARRONA

babestu

GARNACHA MAHATSA

babestu

"SAN ROMÁN"-EKO MUXIKA

babestu

"DEL BUEN CRISTIANO" UDAREA

babestu

ELORRI BELTZA

babestu

TALEGUERA GEREZIA

babestu

HEGAZTI-BASOA

HEGAZTI INTSEKTUJALEENTZAKO KUTXA-HABIAK

babestu

HARRAPARIENTZAKO KUTXA-HABIAK

babestu

SAGUZARRENTZAKO KUTXA-HABIAK

babestu

Ni Potxa bat naiz. Zangozako potxa. Gustatzen al zaizkizu babarrunak? Hala bada, hemen duzu errezeta erraz bat



ON EGIN!

Potxak Errioxako eran

Osagaiak

-Potxa freskoak (kilo eta erdi),
--Tipula erdi bat
-Piper berdea
-Piper gorria
-Txorizoa
-Oliba-olioa

Prestaketa

1. **Zatikatu osagai guztiak.**
2. B**ota olio-zurrusta** bat eltzera, eta **osagaiak sartu**.. Eragin aldian behin.
3. **Gehitu potxak**, eta ondoren, **ura.**

Irakin **su bizian 10 minutuz**, eta utzi **su motelean** irakiten beste **40 bat minutuan**.

Jarraibide testua

Elorri beltza

- ELORRI BELTZA
  (Prunus Spinosa)

- Elorri beltza (*Prunus Spinosa*) eta Rosaceae familiakoa da eta mendietan hazten den zuhaixka da. Beraien **fruituak** basaranak dira eta kolore beltza daukate. Fruitu hauekin Patxarana egiten da. Euskal Herriko edari bat da. Nafarroa da patxaranaren ekoizle nagusia.
  20 eta 200 zentimetroko altuera izatera hel daiteke.
  Lore zuria izaten du. Otsaila eta Maiatzaren artean loratzen da.
  Hostoen ertzak zerratuak dira.
  Ugalketa sexuala egiten dute.

oinez basoa

Azalpen testua

Artea (*Quercus ilex*)

Hosto iraunkorreko zuhaitza da, eta 20 m garai izan daiteke.

Zurtoina – Azala

Zurtoinaren azala marroi iluna eta zartatua da.

Hostoak

Bakunak, txandakatuak, obalak eta horzdunak dira hostoak; larrukarak eta distiratsuak dira gainaldetik, eta argiagoak eta ile ugarikoak, berriz, azpialdetik.

Fruituak

Artearen fruituak, ezkurrak, udazkenean heltzen dira.

Mediterraneoko zuhaitz tipikoa da. Euskal Herrian autoktonoa da, eta klima mediterraneoa duten aldeetan aurkitzen da.

Habitata

Mediterraneoko zuhaitz tipikoa da. Euskal Herrian autoktonoa da, eta klima mediterraneoa duten aldeetan aurkitzen da.

Erabilera

Egurra eta ikatza egiteko erabiltzen zen artea Euskal Herrian. Lurzorua sortzeko eta babesteko balio du. Babeslekua eta janaria ematen die hainbat animaliari.

Mitologia

Zuhaitz sakratutzat hartzen da artea hainbat tradiziotan, euskal mitologian barne. Sendotasunaren eta bizitza luzearen sinboloa da: 1.000 urte baino gehiago bizi daiteke.

Azalpen testua

oinez basoa

Erromeroa sendagai

- **Kanpoko erabileran**, ona da erreuma, artritisa edo lunbalgia duten pertsonentzat. Erromero alkoholarekin igurtzi batzuk emateak mina lasaitzeko balio du.
- **Barneko erabilera:** landare suspertzailea dugu; zenbait organo suspertzeaz gain, animoa ere altxatzen du.

olnez basoa

Azalpen testua

Jabierren eskualdean oso urria den landare bat aurkitu izan da, "Coluteaarborescens“ (espantalobos). Gure baso jangarrian espezie honetako landareak jartzeak desagertzeko arriskuan dagoen tximeleta bat, "lolana iola", eskualdean finkatzen lagundu dezake.

Zangozarrak **Nyctalus noctula** (Nóctulo mediano) espezieko saguzar kolonia txiki bat dugu bizikide. **Intsektu izurriak kontrolatzeko orduan oso garrantzitsua da**. Habi artifizialak jartzeak haien kopurua handiagotzen lagundu dezake, saguzar hauen kopurua oso murritza baita iberiar penintsulan, (Iruñean eta Aranjuezen bakarrik aurkitzen ditugu beste kolonia batzuk).

oinez basoa

Zer babestuko zenuke?

Zer babestuko zenuke ?

Zergatik?

Zein izen jarriko zenioke?



oinez basoa

Zure aukera gurasoei erakutsi zure iritzia kontutan har dezaten.